



Kontratazio
publiko elektronikoa
Contratación
pública electrónica

Formazio Eskaintza

www.contratacion.info
www.euskadi.net/kontratazioa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

10



1. HELBURUAK ETA HARTZAILEAK

Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Sistema Elektronikoa martxan jartzearekin batera, Formazio Egitasmo bat aurkeztu dugu, Kontratazio Sistema Publiko Elektronikoan elkar eragiten duten taldeak sentsibilizatzeko eta trebatzeko ekimenek osatua.

Erabiltzaile hauentzako dira formazio jarduerak:

- Eskaintzak prestatzeko eta izenpetzeko ardura duten enpresa eskaintzaileetako pertsonak.
- Enpresa eskaintzaileetako euskarri informatikoen teknikariak.

2. FORMAZIO EKINTZAK FORMAZIO MODUAK

Egitasmoan bi formazio modu lantzen dira:

• **Aurrez aurreko formazioa**

Eskaintzak prestatzeko eta izenpetzeko zeregina duten pertsonak eta enpresa horietako euskarri informatikoen teknikariek.

• **Autoformazioa**

Enpresen esku hainbat material jarriko dira, eta horiek Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Sistema Elektronikoaren web orrian hartu ahal izango dira:

www.contratacion.info

www.euskadi.net/kontratazioa





Eredu erraz, erabilgarri
eta segurua



Aurrez Aurreko Ikastaroa Enpresentzat

Eskaintza Elektronikoari buruzko ikastaroa enpresentzat, Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Sistema Elektronikoaren arabera.

■ Helburuak

- Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Sistema Elektronikoaren ikuspegi orokorra hartzea: legeak, arkitektura teknikoa eta osagaiak.
- Era elektronikoan eskaintzak egiteko alde zuzeneko baldintza teknikoak eta administratiboak ezagutzea.
- Eskaintza elektronikoak arrakastaz egiteko kontuan hartu beharreko alderdi teknikoak edo legezkoak ezagutzea.
- Dokumentu digitalak egiteko jarraibideak ezagutzea.
- Kontratazio Elektronikoko espedienteak izapidetzeko prozeduraren ikuspegi orokorra izatea.
- Eskaintza Elektronikoaren aplikazioa erabiltzen ikastea.

■ Egitaraua

1. Kontratazio Sistema Elektronikoa: sarrera.
2. Eskaintzak era elektronikoan egiteko baldintza administratiboak.
3. Lehenengo eskaintza egiteko baldintza teknikoak.
4. Eskaintzak era elektronikoan egiteko ezagutu beharreko alderdiak.
5. Eskaintza digitalak egiteko jardunbideak.
6. Kontratazio Elektronikoko espedienteak izapidetzeko prozedura.
7. Eskaintza Elektronikoari dagokion aplikazioaren erabilera.



■ Parte hartzaile kopurua

VITORIA-GASTEIZ: 15 lagun saioko.

BILBAO: 11 lagun saioko.

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN: 11 lagun saioko.



■ Hartzaileak

Enpresa lehiaketetan eskaintzak prestatzen eta izenpetzen dituzten pertsonak.
Enpresa eskaintzaileetako euskarriaren ardura duten teknikari informatikoak.

■ Data eta Iraupena

Formazio saioaren iraupena 3 ordukoa izango da.
Informazio eguneratua:

www.euskadi.net

www.contratacion.info

Formazio
Ekintzak

Aurrez aurreko
Formazioa

Ikastaroen egutegia
eta izen ematea

■ Lekua

Formazio saioak honako gunetan izango dira:

VITORIA-GASTEIZ: 10. aretoa (M eraikinerako sarrera). Donostia-San Sebastián, 1. Eusko Jaurlaritza

BILBAO: Deustuko KZgunea (Bidarte Jauregia). Lehendakari Agirre, 42

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN: Ernest Lluch KZgunea (Anoetako Estadioa). Anoetako Pasealekua, 7.



3. FORMAZIO MATERIALAK

- **Kontsultarako materiala.** Inprimatzeko formatuan dauden testu dokumentuak
 - Eskaintza Elektronikoa aplikazioaren Eskuliburua. Eskaintza Elektronikoa aplikazioa nola dabilen azaltzen du, kanpoko erabiltzailearen ikuspegitik.
 - Legezko agiriak. Kontratazio Publiko Elektronikokoaren legezko esparrua osatzen duten agiriak.
- **Formazio aurkezpenak.** Proiektatzeko eta aurkezpenerako formazio ekimenei eusteko diseinatu diren dokumentuak.
- **Zabaltzeko materiala.** Sistema zabaltzeko eta sustatzeko kanpainetan erabilitako diptiko eta triptikoak. Sistemaren ikuspegi azkarra eskaintzen du, eta baita garrantzi berezia duten alderdi zehatzei buruzko informazio praktikoa ere.
- **Internet.** www.contratacion.info web orriko "formazio jarduerak" atalak aukera ematen du formazioaren alorreko informazio guztia izateko, bai prozesu gidatu baten bitartez, ikastaro birtuala balitz bezala, bai unean uneko kontsultak zuzenean egiteko, eduki jakinetara sartuta.
- **Multimedia materialak.** Formazioaren alorreko web orrialdeen osagarri dira, eta aplikazio informatikoen konfigurazioari eta erabilerari buruzko adibide bisualak eskaintzen dituzte.

Ordenagailuaren konfigurazioa era elektronikoan eskaini ahal izateko.

- Konfiantzazko web guneak gaitzea.

Eskaintza Elektronikoaren aplikazioa erabiltzea.

- Aplikaziora sartzea.
- Eskaintzak aurkeztea.
- Espedienteen jarraipena.
- Pleguak zabaltzea.
- Kontratuak sinatzea.
- Jakinarazpena.
- Komunikazioak.

